

Noiz banatu ziren  
eguzkia eta ilargia



# Noiz banatu ziren eguzkia eta ilargia

**i r u d i a k :**

I R R I M A R R A ilustrazioa

**i p u i n a :**

Y o l a n d a Arrieta

**i t u r r i a :**

J o s u Zabaleta

Z e n b a i t ipuin herrikoi



**BOOKTEGI**


Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Munduaren hasieran Eguzkia eta Ilargia elkarren ahaide ziren, elkarren senide, eta bakoitza bere seme-alabekin bizi ziren zeruan.

Ume asko zeukaten. Zeinek bereak.

Zerua, berez, erraldoia da; mugarik gabea esaten dute asko dakitenek. Beraz, Eguzkiaren eta Ilargiaren seme-alabek nahiko leku zeukaten zeruan bizitzeko, baina Eguzkiak eta Ilargiak planeta urdin bat ikusten zuten euren azpian, eta pentsatu zuten han ere ederki bizi zitezkeela. Planeta urdinari Lur deitu zioten.






Zeruko auzokideekin komentatu zuten ideia:

—Lurrera mudatzekotan gaude. Leku ederra ematen du bizitzeko.

Erantzun bakarra jaso zuten:

—Ez gero! Zaudeten lekuan jarraitu behar duzue, beste planetok zuen inguruan bizi ahal izateko!



Hala bada, goiz batean Ilargiak  
esan zion Eguzkiari:

—Gu joan beharrean,  
seme-alabak jaurtiko ditugu  
Lurrera.

—Ederki —erantzun zion  
Eguzkiak—. Doazela, bada!

Egun bat izendatu zuten  
horretarako. Eta eguna iritsi zen.

Ilargiak zer egin zuen, ordea?  
Ez kutuan gorde zituen bere  
seme-alabak eta, haien lekuan,  
harri-koskor mordo bat sartu zuen  
zakuan.





Zakua lepoan hartuta joan zen Eguzkiaren etxera:

—Kax-kax! Prest?

—Baai —erantzun zion Eguzkiak—. Planeta  
Urdinean zein ongi biziko diren azaltzen ari nintzen  
oraintxe bertan...

—Ederki...




Eguzkiak seme-alabak agurtu zituen:

—Heldu elkarri, entzun? Eta zerbait behar duzuenean, gorantz begiratu: ni beti egongo naiz hemen.

—Konformeee! —esan zuten Eguzkiaren umeeek, zaku handi baten barrutik, bata besteari heldurik.

Eguzkiak eta Ilargiak hartu zuten nork bere zakua lepoan, eta lurrera jaitsi ziren. Ilargiak zakuan zeramatzan harriak ibaira jaurti zituen banan-banan.

Eguzkiak ere hustu zuen bere zakua, han zeramatzan seme eta alabak ibaian utziz.






Ondoren, zeruko etxeetara itzuli ziren biak.

Eguna amaitu zen. Eguzkia ezkutatu zen, baina Ilargia bere seme eta alaba guztiekin azaldu zen zeruan.

Eguzkia aho bete hortz geratu zen auzokidearen familia guztia zeruan ikusi zuenean.

—Ilargi! —hots egin zuen—. Zergatik bota arazi dizkidazu seme-alabak ibaira eta zu zeureekin geratu hemen?





—Zuk argi eta bero handia daukazu —erantzun zion Ilargiak—. Zuk ez duzu seme-alaben beharrik. Gera daitezela uretan, eta bihur daitezela arrain, Planeta Urdina bizi-bizi egon dadin.


Eguzkia asko-asko haserretu zen:

—Ederra egin didazu! Ez duzu zintzo jokatu! Aurretik hitz egin behar genuen horretaz! Ezkutuan ibili zara eta hori ez da gauzak egiteko modurik zuzenena!



Ilargiak ez zion ezer erantzun. Eta Eguzkia zeruaren beste aldera joan zen bizitzera.

Harrez gero, bakoitza bere aldetik dabilta, eta bata agertzen denean bestea gordetzen da.





# BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)